

SOBERANÍA ALIMENTARIA ALDIZKARIAREN ELKARTEA

Argitalpena eta gure jarduerak posible egiteko, bigarren mailako elkarte gisa eratuta gaude; hau da, entitateak eta norbanakoak elkartuta eta antolatuta ari gara, hausnarketarako eta eztabaidarako tresna hau bizirik zaintzeko, eta horren bitartez elikadura burujabetzaz, gizarte eraldaketaz eta landa eremuko bizitzaz jarduteko.

Zer esan nahi du elkartzek?

Beste edozein kolektibotan bezala, entitate gisa, beste elkarkidetzat batzuetan ohikoak diren eskubideak eta betebeharrak ditugu. Nagusien artean daude informazioa eskuratzea eta asanbladako espazioetan parte hartzea; han planteatzen dira une bakoitzeko erronkak, funtzionamenduari buruzko erabakiak hartzen dira, estrategiak planifikatzen eta eguneroko jardunari norabide politikoa ematen zaio.

Urteko asanbladen puntu garrantzitsuenetako bat izaten da urtero landu beharreko gai nagusiak eztabaidatzea eta erabakitzea. Bazkide diren entitate bakoitzak, bere jarduera-eremutik eta sentiberatasunetik abiatuta, bere ikuspegia azaltzen du, eta elkarrekin eztabaidatu eta gai estrategikoak hautatzen ditugu. Era berean, sakontzen dugu ikuspegietan, analisiak eta iritzia jasotzeko funtsezko diren pertsona eta erakundeetan, gatazkazko puntuetan eta abarretan. Ziur gaude zure entitateak ere baduela zer ikasi eta zer ekarpen egin.

Halaber, kolektibo elkartuek jasotako ale kopurua adostu dezakete, erabileraren arabera. Azken finean, bazkideok osatzen dugu, besteak beste, Soberanía Alimentaria, Biodiversidad y Culturas aldizkaria argitaratzen duen elkarte. Argitalpen hau gurea da, eta gure helburuei ondoen egokitzen zaien moduan erabil dezakegu: gure jendeari banatzeko, eztabaidak edo saio tematikoak antolatzeko, eta abar.



Zer ekarpen egiten dio gure entitateari Soberanía Alimentaria-ren parte izateak?

- Manifestu bati atxikimendua ematearen antza izan dezake. Elikadura burujabetzaren alde gau-dela ozen esatea da; oinarritik, baserritarrengandik jaiotzen den paradigma honen esanahi poli-tiko eta disruptiboaren alde, hain zuzen.
- Lurrari, lurraldeari eta komunitateari atxikitako bizitzeko modu askatzaileekiko konpromisoa berrestea dakar.
- Gure entitatearen egitekoa aurrera eramatea da, espazio honi esker ezagutzen ditugun beste kolektibo eta antolakunde kideekin batera.
- Kooperatu, ikasi, konplizitateak josi. Hemen hori guztia egiteko klima aproposa daukagu.



Ilustrazioa: Marrabilla

Nahi al duzu gurekin bat egin?

Zenbat eta gehiago izan, hainbat eta aberatsagoa eta erresilienteagoa izango da proiektua. Naturak bezala, guk ere dibertsitatea dugu gustuko, eta gure baitan daude nekazaritza arloko sindikatuak, GKEak, kontsumo kooperatibak, kultur erakundeak, mugimendu ekologistak eta kolektibo akademikoak, besteak beste.

Hemen zure kuota tramitatu ahal izango duzu.

Lehenengo urratsa da!

